

Ahozko interakzioa ikasgelan¹

Artikulu hau irakasleentzat baliagarria izatea espero dugu, ikasgelan gure ikasleen ahozko adierazpena sustatzeko eta interakzioa, komunikazio-jarduera bat ez ezik, irakaskuntza-ikaskuntzarako ikuspegi bat ere badelako ideia zabaltzeko.

Gako-hitzak

ahozkotasuna, atazak, elkarreragina, jarduerak, mintzamina, hizkuntz trebetasunak

**Sonia Eusebio
Hermira**

International House Madri

1. SARRERA

Helburu jakin batera doitutako adierazpideen sistema bat da hizkuntza, eta ezin da guztiz ulertu haren erabilera gidatzen duten baldintzak hartzen ez badira kontuan hura ikasterakoan. Baina, gizarte-ikuspuntua batetik, deskribapen linguistikoak ezin dira mugatu sistema analizatzerako, hori erabiltzen duten gizabanakoetatik eta testuingurutik berezita.

Beraz, ideia honetatik abiatzen gara: komunikatzeko erabiltzen dugu hizkuntza, eta besteekiko interakzioetatik abiatuz ikasten dugu erabiltzen. Horrela, hizkuntza irakasterakoan bi alderdi horiek kontuan izan behar dira, eta haren izaera bikoitza islatu: komunikazio gisa eta gizarte-prozesu gisa. Ikaskuntzaren ikuspegi soziokonstruktibista horretatik abiatuz, ikasleak bigarren hizkuntza edo atzerriko hizkuntza ikasten du interakzio esanguratsuetan hura erabiltzeko aukera duenean eta bere ezagutzaren eraikuntzan parte har dezakeenean.

Hizkuntza ekintza gisa ulertze horrek eta ikaslea haren erabiltzaile gisa ulertzeak interesa piztu zuten hizkuntza-jardunean zehar ulertu dutela eta ulertuak izan direla ziurtatzeko —edo, bestela esanda, zentzua negoziatzeko— eta hiztunek gauzatzen dituzten buru-jarduerak aztertzeko. Prozesu horiek komunikazioan hartzen duten garrantziak erreakzio metodologiko bat eragin zuen, zeinean atazen eta ekintzen araberako ikuspegiak garatu baitziren. Ikuspegi horietan, hainbat trebetasun bateratzen dituen funtsezko jarduera bihurtzen da interakzioa.

Horrela, didaktikaren ikuspegitik, trebetasunak funtsezko jarduera bihurtzen dira ikaskuntzarako, haien bitartez erabiltzen baitugu hizkuntza. Trebetasunek ahalbidetzen

¹ Jatorrizko artikulua: Eusebio Hermira, S. (2017). La interacción oral en el aula. *PDP Programa de Desarrollo Profesional*. Editorial Edinumen.

Beraien baimenez egokitua, itzulia eta argitaratua.

dute komunikazio-gaitasuna, zeina ez baita besterik gabe modu berezian hitz egitea, irakurtzea, idaztea eta entzutea, baizik eta, hainbat iturritatik abiatuz, zentzua sortzea: irudiak, zeinuak, testuak eta sinboloak.

Irakaslearen funtsezko eginkizuna ikasgelan ikaskuntzarako baldintza onenak sortzea da. Eginkizun horrek egiazko komunikazio batean oinarritzen diren hizkuntza erabiltzeko praktikak aplikatzea dakar, eta horretarako ezinbestekoa da hizkuntzaren komunikazio jarduerak modu integratuan lantzea (hitz egitea, idaztea, irakurtzea eta entzutea), baita hizkuntzaren maila desberdinak ere (ahoskera, hiztegia, morfologia, sintaxia eta pragmatika), hori guztia erabileran inplikaturik dauden alderdi sozio-kulturalak eta ikaskuntzaren izaera soziala ahaztu gabe.

Trebetasunak bi taldetan sailkatu izan dira tradizionalki; batetik aktiboak (mintzamina eta idazmina) eta, bestetik, pasiboak (irakurmina eta entzumina). Gaur egun, bi termino horiek ordeztu egin dira, bakoitzak komunikazioan duen eginkizuna hobeto adierazten duten beste batzuekin; horrela, trebetasun ekoizleak eta hartzaileak bereizten ditugu eta, ikusi dugun bezala, beste berri bat gehitzen dugu: interakzioa.

Horrenbestez, Garcíaren proposamen interesgarriari jarraikiz (2006), artikulua hau bi atal nagusitan egituratu dugu: interakzioa ikaskuntzaren teoria gisa eta interakzioa helburu didaktiko gisa. Lehenengoan aipatzen ditugun teoriak eta ikuspegiak agerian uzten dute zer neurritan eragiten dion hizkuntzaren erabilerak haren ikaskuntzari; bigarrenean, ELEko edo H2ko irakasle gisa oro har erantzun behar diegun bi galderei erantzuten saiatuko gara: zer ikasten den interakzioaren bitartez eta nola irakats daitekeen.

2. INTERAKZIOA, IKASKUNTZAREN TEORIA GISA

Interakzioan oinarritutako teoriaren hipotesien erdigunean baieztapen hau dago: elementu giltzarria ez da ikasleak jasotzen duen *input*-a edo informazioa, input hori ulergarri eta *output* (irteerako testu) bihurtzen duen prozesua baizik.

Hainbat egile eta kontzeptu daude interakzioan oinarritutako teoriaren atzean, baina ikuspegi horren azpian dagoen ideia hau da: ikaslea gauza da sartutako informazioa edo ezagutza enuntziatu ulergarri eta egokiagoetan emateko, bere ekoizpenen eta interakzioak ahalbidetzen duen atzeraelikaduraren bitartez.

Pica et al.-en (1993) azterlanaren laburpen batean Garcíak (2006) azaltzen digunez, elkarrizketaren egiturak berak ahalbidetzen du ikaskuntza, komunikazio-trukeko eta negoziatze jardueren bitartez. Interakzioan izaten diren diskurtso-aldaketak eta elkarrizketa-doikuntzek (argitzeko eskaerak, errepikapenak, ulerkuntza-adierazpenak...) ikaslearen kontzientzia eta, horrekin batera, autozuzenketak eta ikaskuntza berria sustatzen dituzte. Interakzioko, lankidetzako eta testuinguru sozialeko praktikan parte hartzeak ikaslearen beharrezkoak hautemateko aukera ematen dio irakasleari, baita komunikazio arrakasta lortzeko behar dituzten edukiak eskaintzeko ere. Halaber, hizkuntza-baliabideak hizkuntzaren benetako erabileretan aplikatzeko aukera eskaintzen die ikasleei.

Ikasgelara eramandako jarduerak parte hartzeko aukerak maximizatu beharko dituzte. Zenbat eta negoziatze-egokiera gehiago eman ikasleei, orduan eta aukera gehiago izango ditugu beren arteko eta irakaslearekiko interakzioan jardun dezaten.

Ikusi dugun bezala, mezuen kodifikazio eta deskodifikazio hutsak baino konplexuagoak diren jarduerak jartzen ditu abian komunikazioak. Edukiak eta prozesuak dituen komunikazio-jarduketara bat da, eta hitzunez kontrolatu eta zuzentzen dute, komunikazio arrakasta lortzeko (Martin Peris, 2004). Aldi berean, ikasgela testuinguru soziala da, eta bertan irakasleak eta ikasleak interakzioan dihardute; horregatik, eskaintzen dizkigun baliabideak erabili behar ditugu, eta jakitun izan bertan gertatzen diren interakzioen

izaerak eragin esanguratsua izango duela ikaskuntzaren kalitatean (Dörnyei eta Malderez, 2000).

Martín Peris-en (2004) aburuz, ikasgelako atazak ikasgelan abian jartzen dituen komunikazio prozesuek interakziora bultzatzen dituzte ikasleak, eta, beraz, esanahiaren negoziatziora. Erabiliz ikasten da hizkuntza bat, eta atazek haren erabilera naturaleko egoerak erreproduzitzeko aukera ematen digute.

Ikuspegi horren esperientziak erakutsi zigunez, ikasgelako ataza bat ez da bizitza errealean egiten ditugun ekoizpenak imitatze ahalegin bat; aitzitik, ikasgelak ematen duen ikaskuntza-testuinguruaren berezitasunak askatasuna ematen digu jarduerak helburu pedagogiko batekin erabiltzeko. Garrantzitsuena, eta hemen kokatzen da gure interesa, ikasleei hizkuntzaz kanpoko helburu bat ematea da (ataza); horrela, helburu horretatik abiatuz ikasleek interakzioan erabili behar dute hizkuntza, eta horrek aukera emango die hizkuntza-, diskurtso- eta estrategia-baliabideak praktikan jartzeko eta prozesuan esku hartzen duten komunikazio-mekanismoak garatzeko. Hori lortzeko sortutako beharrezkoak berak sorraraziko ditu eman behar zaizkien eduki berriak, eta horrela esperientzia esanguratsua izango da ikaskuntza. Martín Peris-en (2001) hitzetan, atazak bizitza errealean "erakusgarri" izango dira, hau guztia eskaini behar baitute: komunikazio-helburu bat, plan estrategiko bat, interakzioa nola garatuko den ezin aurreikustea, eta mezuen edukiari arreta jartzea.

3. INTERAKZIOA, HELBURU DIDAKTIKO GISA

Ikastearen helburua komunikazioa bada eta ahozko adierazpenak bitarteko eta helburu gisa duen garrantzia onartzen badugu, alde batetik interakziorako beharrezkoak diren edukiak erakutsi beharko dizkiegu gure ikasleei (ahozko hizkuntzaren ezaugarriak, testu-tipologia, komunikazio-estrategiak, elkarrizketa-taktikak...) eta, bestetik, ahozkotasuna, partaidetza eta negoziatziora bultzatzen dituzten jarduerak txertatu behar ditugu gure programazioetan (komunikazio funtzionaleko jarduerak eta gizarte-interakzioko jarduerak).

3.1. AHOZKO INTERAKZIOAREN EDUKIAK

Interakzio-jardueraz hitz egiten dugu komunikazioa aurrez aurre gauzatzen denean, denbora errealean, eta entzulearen eta hiztunaren paperak txandakatzen direnean. Bi norabideko jarduketara hori dela-eta, kontuan izan behar dugu solaskideak hainbat ataza egin behar dituela komunikazio-egintzan komunikazioak aurrera egin dezan: testuingurua ulertu, hizkuntza-adierazpena ahalik eta modu egokienean gauzatu, erantzuna entzun eta zentzua atera, zentzu horrek helburuetarako duen garrantzia ebaluatu, eta bere jarduketarekin jarraitu edo aldatu (Martín Peris, 2004). Askotan, gainera, beste trebetasun batzuk ere jartzen dira lanean: idazmena (oharrak hartu, gidioak prestatu...) eta irakurmena (informazioa bilatu, prestatutako gidioak errepasatu, laburpenak erabili laguntza gisa...).

Ikusten dugun bezala, bere baitan trebetasun eta gaitasun asko biltzen dituen jarduera da interakzioa. Irakaslearen lana da interakzioan esku hartzen duten hizkuntzaren, diskurtsoaren, pragmatikaren eta hitzik gabeko komunikazioaren arloko tresnak ematea. Ikus ditzagun horietako batzuk:

- Interakzioa eraikitze taktikak (Barroso, 2000): Noiz eta nola hartu hitza. Nola gonbidatu pertsona bat hitz egitera. Nola erraztu elkarrizketak aurrera egitea. Noiz eta nola amaitu elkarrizketa bat.
- Esanahia negoziatzeko taktikak eta horretarako abian jartzen diren prozesuak: Ulertu dutela ziurtatu. Ulertu duela ziurtatu. Birformulatu eta autozuzendu. Azalpenak eman.
- Komunikazio-egintzaren eta testu-tipologiaren arabera behar diren hizkuntza baliabideak. Solaskideak esku-hartzeak antolatu behar ditu, eta hizkuntza baliabideak hautatu, hauek kontuan izanik: Kokapena. Partaideak. Helburua. Egitura. Erregistroa eta tonua. Testu-mota (lagunarteko elkarrizketa, eztabaida

informala, eztabaida formala, mahai-ingurua, elkarrizketa, negoziazioa...) eta haren funtzioa (instrukzioa, narrazioa, deskribapena, azalpena edo argibidea, argumentazioa...).

- Elementu paralinguistikoak (Cestero, 2006): Soinuaren ezaugarri fisikoek (tonua, tinbrea, kantitatea eta intentsitatea, aldarazle fonikoak edo ahots motak) eman nahi den informazioa determinatzen dute, edo zentzua ñabartzen. Erreakzio fisiologiko edo emozional batzuek (barrea, hasperena, oihua, eztula, garraspera, ahoa zabaltzea...) kultura batetik bestera alda daitezkeen komunikazio-osagai eragileak dituzte. Elementu kuasilexikoak (soinuak, interjekzioak, onomatopeiak, izt eta txistu egitearen moduko soinuak, isiluneak, etenaldiak...) komunikazio-baliorekin erabili ohi dira konbentzionalki, zenbait zeinu linguistiko edo zinesikoen antzera.
- Elementu zinesikoak: keinuak, moduak, jarrerak, begirada, gorputz-kontaktua...
- Adierazpen- eta ulermen-estrategiak: Beste hizkuntza batzuetako hitzak egokitzea. Itzulunguruak eta parafraziak erabiltzea. Argibideak eskatzea. Gutxi gorabeherako terminoak eta adierazpenak erabiltzea. Hitz giltzarrietan oinarritzea. Sinonimoak bilatzea eta hiperonimoak erabiltzea. Solaskidearekin lankidetzan jardutea. Autozuzenketak egitea. Giltzarri linguistikoei edo paralinguistikoei arreta jartzea. Kodea aldatzea. Makulu-hitzak erabiltzea.

3.2. AHOZKO INTERAKZIOKO JARDUERAK

Ahozko interakzioko jarduerak ikasleak behartu behar dituzte ikasitako hizkuntza- eta diskurtso-edukiak erabiltzera, hizkuntzaren ezaugarri formalei arreta jarritz; horrez gain, prozesuak eta estrategiak sustatu behar dituzte, zentzuari eta esanahiari erreparatuz, benetako bizitzan aplikatu litezkeen komunikazio-egoerak ikasgelan erreproduzitzeko moduan. "Ahozko adierazpeneko jarduerak simulaziotzat hartuko dira, eta ikasgelako gertakari gisa onartuko dira, ez gertakari natural edo espontaneo gisa" (Baralo, 2000).

Hala ere, ikusi dugun bezala, ebatzi behar diren atazek ikasleak bultzatzen badituzte informazioa trukatzera, iritziak partekatuz, akordioak erdiestera eta negoziatzera, arazoak konpontzera..., egiazko interakzioak eragiten ari diren gara eta testuinguru errealean egiten den hizkuntzaren erabilaren erreproduzio zehatza egitea lortuko dugu.

Horrela, jarduera batek irizpide hauetako gehienak betetzeko gaitasuna izan ahalko du:

- Ikasleari aukera ematea ikasgelan praktikatu behar diren hizkuntza mundu errealean estrapolatzeko. Ikaslea, ikaskuntzaren subjektu gisa, eragile sozial bat da, eta gizarteko beste kide batzuekin harremanak eta interakzioak hastera eramaten duten beharrezko bultzatuta erabiltzen du hizkuntza. Horrela, ikasgelako jarduerak komunikazio-prozesu horiek sustatu behar dituzte.
- Ikasleen arreta eta motibazioa eragin behar dute: esanguratsuak izan. Ataza esanguratsuak dira ikasleentzat zentzu pertsonala dutenak, haien aurreko ezagutzekin eta adimen-egiturekin konektatzen dituztenak eta horien funtzionalitateak harago lotzen dituztenak haien ikaskuntzarekin.
- Ikasle guztien partaidetza lortzea. Ataza gauzatzeko bete behar diren funtzioak eta erantzukizunak dituzten kideek osatutako talde itxietan oinarritutako ikasgelako dinamikek erraztu dezakete interakziorako beharrezkoak diren partaidetza eta trukea lortzea. Horren ildotik, ikaskuntza kooperatiboaren premisak aukera on bat dira trebetasunak bereganatzeko eta interakzioa sustatzeko.
- Faktore kognitiboak eta afektiboak kontuan izatea. Ikaskuntzan banakako baldintzatzaileak esku hartzen dute, motibazioak, antsietateak eta autoestimua besteak beste, baita pertsona-arteak beste batzuek ere, hala nola irakasle eta ikasle artean eta ikasle beraiekin artean sortzen diren

harremanek. Materialak, atazak eta ikasgelako dinamikak lagungarriak dira irakaslearentzat kudeaketa afektiboa egiterakoan.

- Ikasleen mailara egokituta egotea. Batzuetan, ikasleek ez dute parte hartzen jardueraren eskakizun maila ez datorrelako bat beren ezagutzarekin.

Besteak beste, gure ikasgeletan jarduera hauek proposatu ditzakegu: Elkarrizketa espontaneoak (jakin-mina eragin duen gai edo inguruabar batetik abiatuz, interesa adieraziz ikasleen bizitza pertsonalari, gustuei eta esperientziei buruz...), edo elkarrizketa gidatuak. Galdera eta erantzunetan oinarritutako jarduerak. Trukeko atazak edo informazio-hutsuneak (*jig saw*). Lehentasun-zerrendako jarduerak. Mahai-inguruak eta eztabaidak. Jolasak eta lehiaketak. Testak eta galdera-sortak. Simulazioak eta dramatizazioak. Pasadizoak, bidaiak eta esperientziak kontatzea edo asmatzea. Pertsonalizazioak.²

Amaitzeko, ahozko interakzioko jarduera bat prestatzeko aurreikusi behar diren faseak deskribatuko ditugu, gure prozedurak erraztu ditzaten:

- Jardueraren aurreko fasea: Gaia aurkezteko eta motibatzeke, aurretiko ezagutzak aktibatzeke eta hiztegi erabilgarria sortzeko jarduerak: irudiak, testuak, ideia-jasak, egoerak... Ataza gauzatzeko beharrezkoak diren forma- eta diskurtso-edukiak aurkezteke jarduerak.
- Jardueraren fasea: Ataza finkatzea, ikasleek egin beharko duten jarduera eta erabiliko den dinamika deskribatuz. Ekin aurretik prestakuntza-denbora bat uztea komeni da, ideiak edo gaia sortzen laguntzeko (ideia-jasa, idazketa automatikoa...), egoera eta parte-hartzaileak zehazteko (helburua definitzea, erregistroa hautatzea...) eta ideiak antolatzeke (organigramak, mapa mentalak, eskemak, diagramak...).
- Jardueraren ondoko fasea. Interakzio-atazek jarduera eratorriak izan ditzakete: muralak, aurkitutako beharrezanetatik abiatuta edukiak aurkeztea, testuak, audioak edo bideoak irakurri, entzunez edo ikusiz informazioa zabaltzea...

Itzultzailea: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

² Editorearen oharra: artikulugileak beste autore batzuekin sortu eta Edinumenek argitara emandako *Etapa* testuliburuetan daude jarduera hauen adibideak gaztelaniaz.

Bibliografia

- Arnold, J. (2000). *La dimensión afectiva en el aprendizaje de idiomas*. Madrid: Cambridge University Press.
- Baralo, M. (2000). El desarrollo de la expresión oral en el aula de ELE. *Carabela* 47, 5-36. Hemendik eskuratua: <https://www.nebrija.com/revista-linguistica/files/articulosPDF/8.Baralo1.pdf>
- Barroso, C.L. (2000). El desarrollo de la interacción oral mediante las estrategias de comunicación. *¿Qué español enseñar? Normas y variación lingüística en la enseñanza del español a extranjeros: actas del XI Congreso Internacional ASELE, Zaragoza, septiembre de 2000*. (175-180 or.). Hemendik eskuratua: https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/asele/pdf/11/11_0175.pdf
- Cestero, A. (2006). La Comunicación no Verbal y su estudio. *VIII Jornadas de Estudios de Lingüística. Análisis del Discurso*. Universidad de Alicante.
- Dörnyei, Z. eta Malderez, A. (2000). El papel de la dinámica de grupos en el aprendizaje y la enseñanza de lenguas extranjeras. In J. Arnold (ed.), *La dimensión afectiva en el aprendizaje de idiomas* (173-187 or.). Madrid: Cambridge University Press
- García, M. (2007). La interacción oral alumno / alumno en el aula de lenguas extranjeras: líneas de investigación y consideraciones didácticas. In E. Balmaseda (koord.). *Las destrezas orales en la enseñanza del español L2-LE. XVII Congreso Internacional de la Asociación para la enseñanza del Español como Lengua Extranjera (ASELE). Logroño, 2006* (555-566 or.). Logroño: Universidad de la Rioja. Hemendik eskuratua: https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/asele/pdf/17/17_0555.pdf
- Martín Peris, E. (2004). ¿Qué significa trabajar en clase con tareas comunicativas? *redELE 0*. Hemendik eskuratua: <https://www.mecd.gob.es/dam/jcr:6c042cff-8f14-43de-87f3-9de353ab511d/2004-redele-0-18martin-pdf.pdf>